



lanbide

**DIRU-SARRERAK BERMATZEKO
ERRENTA (DSBE) ESKATZEKO
ERANTZUKIZUNPEKO AITORPENA**

ERE-DBE-004

Berrik. 13
Indarrean sartu den eguna:
2026/01/26

ESKATZAILEAREN/ TITULARRAREN DATUAK

Lehenengo abizena	Bigarren abizena	Izena	NAN-AIZ-Pasaportea
-------------------	------------------	-------	--------------------

Nire ERANTZUKIZUNPEAN ADIERAZTEN DUT DSBEa aitortzeko eta kalkulatzeko eskatzen diren alderdi hauek egiaztatu ditzakedala, **nahiz eta hori egiaztatzen duen dokumentazioa ez erantsi:**

- ☐ Egoera zibila (bere egoera zibila ezkondua, dibortziatua, banandua edo banantzeko ala dibortziazteko izapideak egiten ari denean bakarrik).
- ☐ Etxebizitzaren erabilera-erregimena (soilik jabetzako etxebizitza ez bada).
- ☐ Desgaitasunaren %/ Mendekotasun-maila.
- ☐ Biktima: gizakien salerosketa/sexu-esplotazioa/genero-indarkeria/etxeko indarkeria/terrorismoa.
- ☐ Adingabe emantzipatua.
- ☐ Errefuxiatua, edo babes subsidiariorako eskubidea duena, edo asilo-eskaera duena edo nazioarteko babes-eskaera duena, izapidetzeko onartua hura ebatzi arte, edo aldi baterako babesaren onuraduna.
- ☐ Aberrigabea edo izapidetzeko onartutako aitorpen eskaera duena, eskaera hori ebazten ez den bitartean.
- ☐ Adin nagusitasunera iritsi aurreko uneren batean adingabeak babesteko edo arau-hausle adingabeei gizarte- eta hezkuntza-arreta emateko sistemari lotuta egon den pertsona, edo adingabea babesteko legerian aurreikusitako bizitza independenterako prestakuntza programetan parte hartu duena.
- ☐ Terrorismoaren biktima izaera aitortua duen pertsona, edo haren ezkontidea (edo ezkontzaren antzeko harremana duen pertsona), edo EAEra itzuli eta udalerrri batean bizi diren seme-alabak.
- ☐ EAEra itzuli eta bertako udalerriren batean bizi izan den euskal gizataldeetako kidea.
- ☐ Erabateko umezurtza edo antzeko egoeran dagoena (173/2023 Dekretuaren 7. artikulua).
- ☐ Hondamendi-egoera batek kaltetutako pertsona, larrialdiak kudeatzeko eta babes zibileko legeriaren arabera.
- ☐ Gizarte-larrialdiko eta lehentasunezko arretako egoeran dagoen pertsona, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren 28. artikuluan edo hura ordeztzen duen arauan xedatutakoaren arabera.
- ☐ Gizarte-bazterkeriaren diagnostiko larria duen pertsona, 385/2013 Dekretuan edo hura ordeztzen duen arauan aurreikusitako baldintzetan.
- ☐ Ohiko etxebizitza utzi duen pertsona, errentak ez ordaintzeagatik, gerora sortutako ordaintzeko ezintasunagatik, hipoteka betearazteko prozedura batengatik, etxebizitza bizigabe geratu delako edo etxebizitzaren irisgarritasun-arazoak behar bezala egiaztatuta daudelako.
- ☐ Banantze- edo dibortzio-izapideak hasi dituen pertsona, edo izatezko bikote edo elkarteen erregistroko inskripzioa ezeztatzeko eskatu duena.

NIRE ERANTZUKIZUNPEAN ADIERAZTEN DUT honako alderdi hauek egiaztatu ditzakedala, **bizikidetza-unitateko kideei dagozkienak**, DSBEa aitortzeko eta kalkulatzeko eskatzen direnak, **nahiz eta hori egiaztatzen duen dokumentazioa ez erantsi:**

- ☐ Desgaitasunaren %/ Mendekotasun-maila.
- ☐ Biktima: gizakien salerosketa/sexu-esplotazioa/genero-indarkeria/etxeko indarkeria/terrorismoa.
- ☐ Eskatzailearekiko harremana.
- ☐ Zaintza-mota.



Lanbide

**DIRU-SARRERAK BERMATZEKO
ERRENTA (DSBE) ESKATZEKO
ERANTZUKIZUNPEKO AITORPENA**

ERE-DBE-004

Berrik. 13
Indarrean sartu den eguna:
2026/01/26

NIRE ERANTZUKIZUNPEAN DEKLARATZEN DUT ERE-DBE-001 ereduan (prestazio-eskaera) adierazitakoa egiazta dezakedala, **bizikidetza-unitatearen diru-sarrerei eta ondareari dagokienez eskaera egiten den hilean**, DSBE aitortzeko eta kalkulatzeko eskatutakoak, **baina ez dut hori egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu:**

- ☐ Diru-sarrerak.
☐ Ondasun higigarriak eta higiezinak (estatuan eta atzerrian).

JAKINARAZTEN ZAIO Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak **kontrol-prozedurak** egingo dituela erantzukizunpeko adierazpenetan adierazitako baldintzak eta alderdiak betetzen direla egiaztatzeko. **Dokumentazioa faltsua bada, zehatza ez bada edo aurkeztzen ez bada**, aitortutako prestazioa azkendu egingo da, eta **ezin izango da eskatu** ebazpena irmo bihurtzen denetik **bi urteko epean**, hargatik eragotzi gabe sor daitezkeen erantzukizun administratiboak, zibilak, penalak edo bestelakoak.

NIRE ARDURAPEAN ADIERAZTEN DUT:

1. Egiazkoak dira erantzukizunpeko adierazpen honetan agertzen diren datuak.
2. Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren titularra izateko 14/2022 Legean ezarritako baldintzak betetzen ditut.
3. Bizikidetza-unitateko gainerako kideek Diru-sarrerak bermatzeko Errentaren onuradun izateko 14/2022 Legean ezarritako baldintzak betetzen dituzte.
4. Hori egiaztatzen duten agiriak baditut, eta Administrazioaren eskura jarriko ditut eskatzen dizkidatenean, nire eskubidea aitortu edo baliatzen den denboran.
5. **Badakidala funtsezko zehaztasunik ezak, faltsutasunak edo ez-egiteak prestazioa azkentzea dakarrela eta ezin dela eskatu bi urteko epean**, ebazpena irmoa den egunetik zenbatzen hasita, hargatik eragotzi gabe egon litekeen zehapen-erantzukizuna.

Data eta eskatzailearen sinadura.

_____(e)n, 20 ____ (e)ko _____aren ____ (e)(a)n

Sin.: _____